

NIRE LEHENGUSUA

ETA NI, LUR GLOBOA

Kaixo! Ni lur globoa naiz. Bost urte igaro ditut eskola honen barruan eta urte hauetan asko baino gehiago erabili izan naute, nik ahalik eta gehien erakusten nizkien nire azalean zeudenak eta ehundaka gauza ikasi dituzte nigandik.

Egun batez, irakasle batek bidaia bat egin behar zuen eta ez galtzeko ni eraman ninduen justu beste batzuek etorri behar zutenean maila honetara, eta nik Ameriketara joan behar nuenez, ezin izango nien ikasgaia erakutsi. Baina ni ez nintzen kezkatu. Izan ere, beste gai batekin hasiko ziren eta nire gaiarekin bukatu. Ni oso pozik joan nintzen bidaia hartara.

Hiru hilabete inguru pasa ondoren, berriro itzuli nintzen nire bizilekura ikasleei kokapenak erakusteko asmoarekin. Baina gelara sartu, apalean utzi eta munduaren alde bat bakarrik azaltzen zen kartulinaz eginiko mapa hartu zuten. Izan ere, alderdi batekoa besterik ez zuten ikasten. Itxura denez, ni kanpoan nengoen bitartean beste gai batekin hasi ordeztu beste mapa bat erosi zuten. Orduan ni apaingarri bezala nengoen.

Egun horiek pentsatzen eta pentsatzen igaro nituen eta gogoratu nuen, hiru hilabete horietan, Ameriketara ume batzuei dezente irakatsi nizkiela gauzak. Horregatik hegazti batzuei hara joateko laguntza eskatu eta harantz eraman ninduten.

Hala ere ni oso amorrarrita geratu nintzen, nire gelan nik hainbeste irakatsitako gelan, espagetia baino finagoa den mapa itsusi eta harroputza egotea!

Eta gainera ez hori bakarrik, ni gelako izkina batean eta bera erdian, bai erdi-erdian! Gelan sartu eta aurrez-aurre ikusten zen tokian jarrita zuten!

Behintzat, nik beste ume batzuei ematen dizkiet orain ikasgaiak, baina ... orduantxe nire lehengusuarekin hitz egitea otu zitzaidan.

Berriro ere Andoainera itzuli nintzen hegaztien laguntzaz, nire lehengusuarekin elkartzekotan.

Nire lehengusua ere mapa fina da, bestea bezala baina nire lehengusua askoz dotoreagoa da eta baita koloretsuagoa ere .

Nire lehengusua etorri zenean guzti-guztia kontatu nion: bidaiarena, umeena, beste maparena, hegaztien eta baita nire tristurarena ere. Hori dena kontuan hartuta nire lehengusuak dena pentsatu zuen. Tratu bat proposatu zidan: berak mapa harroputza bidaliko zuen, baina nik bera (lehengusua) ere nire gela berera eraman beharko nuen. Beraz mapa harroputza bidalita ere niri ez zidaten kasurik egingo, nire lehengusuari baizik. Baina tira! Nire lehengusuak hegaztien bidez beste umei irakastera joan ote nahi zuen galdetu zion mapa harroputzari eta berak baietz esan zion.

Nik lanpostua berreskuratuz, gainera mapa harroputzaren laguna egin ginen.

Nire lehengusuak Ikastolan zerbait egiten zuen bitartean mapa harroputza agurtzera joan nintzen. Ondoren gelara joan nintzen. Ni triste samar nengoen kasurik egingo ez zidatela eta.

Iritsi nintzenean, atea zabaldutakoan ni eta nire lehengusuari galdezka hasi zitzaizkigun ikasgaiari buruz.

Eta horregatik nago ni oraindik hemen. Baina nire lehengusuak ez dit inoiz esan nahi izan zergatik itzuli ziren, niri ere kasu egitera. Hala ere mila gauza zor dizkiodan arren, berarengatik bizi naiz oraindik.